Herri Kontuen Euskal Epaitegia
Tribunal Vasco de Cuentas Públicas

BALDINTZA ADMINISTRATIBO BEREZIEN AGIRIA

BIZITZA- ETA ISTRIPU–ASEGURUEN KONTRATUA (PROZEDURA IREKI SUPERSINPLIFIKATUA)

I.- KONTRATUAREN EDUKIA

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Plegu honen arabera egiten den kontratuaren xedea izango da **HERRI KONTUEN EUSKAL EPAITEGIAREN ASEGURU PRIBATUAK KONTRATATZEA, ARRISKU PERTSONALAK ESTALTZEKO,** baldintza teknikoen pleguan, plegu honetan eta kontratuaren esleipendun gertatzen den eskaintzan zehaztutako baldintzetan.

HERRI KONTUEN EUSKAL EPAITEGIAren zerbitzura diharduten langileen Istripu- eta Bizitza-polizen estaldurei buruzko arrisku pertsonalak:

- Edozein kausak eragindako heriotza-arriskua.
- Erabateko baliaezintasun iraunkorra izateko arriskua.
- Baliaezintasun iraunkor osoa izateko arriskua, plegu teknikoan aurreikusitako baldintzetan.
- Istripuetatik eratorritako arriskuak, heriotza, ezintasun iraunkor absolutua, ezintasun iraunkor osoa eta ezintasun iraunkor partziala barne, aplikatu beharreko baremoaren arabera.
- Preskripzio tekniko partikularren agirian aurreikusitako beste edozein estaldura osagarri.

Kontratuaren xedea ez da sortatan banatzen, antiekonomikoa eta ez-operatiboa delako, eta ezin delako zatitu, gauzatzeko beharrezkoa den koordinazioa dela eta.

KONTRATU IZAERAKO AGIRIAK Hauek dira kontratu-dokumentuak:

a) Administrazio-klausula berezien plegua (AKBP).
b) Baldintza tekniko zehatzen plegua (PTP).
c) Kontratua formalizatzeko dokumentua edo esleipen-ebazpena.

Kontratua espedientearen xede diren aseguruak kontratatzeko gaitutako aseguru-etxeei zuzenduko zaie zuzenean. **Ez da aurreikusten bitartekariek eskaintzak aurkeztea, ezta aseguru-etxeek haien izena proposatzea ere,** zerbitzua emateko.

Kontratuko agiri eta komunikazio publiko guztiak gaztelaniaz eta/edo euskaraz eman ahal izango dira, eta lizitatzaileek eta HKEEko langileek kontratuaren prozeduran eta egikaritzan euskara erabiltzeko duten eskubidea bermatuko da.

2.- EGITEKO EPEA

Kontratuaren iraupena URTEBETEKOA izango da, 2027ko urtarrilaren 1etik aurrera kontatuta. Ez da luzatzek aukerarik izango.

Beato Tomás de Zumárraga 69, Vitoria-Gasteiz. 01008 (Araba). Tfnoa. 945 016 000

EBAZPENA RESOLUCION
Zenbakia: 2026-0095 Data: 24/11/2026

Baliozkotze Kod.: 3QFQCFQ7QHXJ7GHCDGR5RK67W
Egiaztapena: https://tvcphkee.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 6. orrialdea, guztira 48

3.- KONTRATUAREN AURREKONTUA ETA KREDITUA IZATEA

Kreditua izateari dagokionez, jasota utzi da aurrekontuko diru-izendapena dagoela kontratu honen xede diren polizen primen zenbatekoari aurre egiteko.

Urtebeteko kontraturako zenbatetsitako balioa da: 34.000 euro.

Behin kontratua esleitu ondoren, prezioan sartuta egongo dira zerbitzua ematetik eratortzen diren gastu eta zerga guztiak.

4.- FINANTZAKETA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko behar adinako finantza-aurreikuspenak egingo dira dagokion urteko aurrekontuaren kontura.

5.- ORDAINKETARAKO MOLDEA

Esleipendunak lizitazio honen xede diren aseguru-polizak formalizatzearen ondoriozko primen zenbatekoa jasoko du HERRI KONTUEN EUSKAL EPAITEGITIK.

Kontratuaren prezioa ordainduko da kobrantza-agiria aurkeztuta eta ados jarrita, era honetan: enpresa esleipendunak kobrantza-abisu bat aurkeztu beharko du epemuga baino hilabete lehenago, dagokion zenbatekoa kontuan noiz kargatuko den adieraziz.

6.- PREZIOAK BERRIKUSTEA.

Kontratu honetan ez dagokio prezioak berrikustea.

Hori dela eta, primaren zenbatekoa soilik aldatuko da aseguru-gai den ondasun kopurua aldatzen denean (bajak eta gehikuntzak).

7.- BERMEAK

Behin-behineko bermea:

Ez da eskatzen.

Behin betiko bermea:
Ez da eskatzen.

II.- KONTRATATZEKO PROZEDURA

8. ESLEITZEKO PROZEDURA ETA MODUA

EBAZPENA RESOLUCION
Zenbakia: 2026-0095 Data: 24/11/2026

Baliozkotze Kod.: 3QFQCFQ7QHXJ7GHCDGR5RK67W
Egiaztapena: https://tvcphkee.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 7. orrialdea, guztira 48

Beato Tomás de Zumárraga 69, Vitoria-Gasteiz. 01008 (Araba). Tfnoa. 945 016 000

Kontratua prozedura ireki supersinplifikatu bidez esleituko da, azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen (aurrerantzean, SPKL) 159.6 artikulua aplikatuta, lege-testu horretan zehaztutako modu eta baldintzen arabera.

9/2017ko Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 25,1 a) 1 artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratu hau pribatua da.
CPV KODEA: Bizitza eta Istripuak: 66511000-5 eta 66512100-3

ESLEIPEN IRIZPIDEAK

1. PREZIOA.- 100 PUNTU

Eskaintzen haztapena egiteko honela baloratuko da prezioa: Puntuazio gehiena prezio ekonomikoenari emango zaio eta gainerako eskaintzen puntuazioa eskuratuko da preziorik merkeenaren eta lizitatzailearen eskaintzaren (irizpideari ezargarriak zaizkion puntu guztiekin baloratzen dena) arteko zatikaduraren emaitza biderkatuta. Hau da,
Lp= Em/Le x 100
Non:
Lp: Lizitatzailearen puntuazioa
Em: Eskaintzarik merkeena
Le: Lizitatzailearen eskaintza

9.- KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA

Proposamenak aurkeztu ahal izango dituzte jarduteko gaitasun osoa duten eta kontratatzeko debekurik ez duten pertsona fisiko edo juridikoek, espainiarrak izan zein atzerritarrak izan.

SPKLren 159.6 artikuluaren arabera, **ez da beharrezkoa izango kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko edo profesionala egiaztatzea**.

Jarduteko gaitasuna eta kontratatzeko debekurik eza honela egiaztatu ahal izango da:

- Pertsona juridikoen kasuan, eratze-eskritura edo -agiria, estatutuak edo sortze-egintza.
- Pertsona fisikoen kasuan, NANaren fotokopia eta EJZn alta eman izanaren egiaztagiria.
- Dagokion erregistroan izena emanda egotea, zinpeko aitorpena edo ziurtagiria, Europar Batasuneko estatu kideetako enpresaburuen kasuan.
- Espainiako Misio Diplomatiko Iraunkorraren txostena, edo kontsuletxeko bulego eskudunarena, atzerriko gainerako enpresaburuen kasuan.
- ROLECSPen edo Euskadiko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan izena ematea.

Eskumena daukan agintariak ezin badu agiri hori eman, aukeran da, horren ordez administrazioko agintari baten aurrean, notario publiko baten aurrean edo organismo kualifikatu profesional baten aurrean egindako erantzukizunpeko deklarazio bat entregatzea.

Beato Tomás de Zumárraga 69, Vitoria-Gasteiz. 01008 (Araba). Tfnoa. 945 016 000

EBAZPENA RESOLUCION
Zenbakia: 2026-0095 Data: 24/11/2026

Baliozkotze Kod.: 3QFQCFQ7QHXJ7GHCDGR5RK67W
Egiaztapena: https://tvcphkee.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 8. orrialdea, guztira 48

10.- PROPOSAMENAK AURKEZTEA

SPKLren 2017ko 63. artikuluaren arabera, baldintza-agiriak eta gainerako informazio osagarria eskuratzea kontratatzailearen profilaren bitartez egingo da **http://www.contratacion.euskadi.eus**, bitarteko elektronikoen bidez; haietarako sarbide hori librea, zuzena, osoa eta doakoa izango da, eta lizitazio-iragarkia argitaratzen denetik eskuratu ahalko dira.
Proposamenek gutun azal BAKARRA izango dute.

Interesdunen proposamenek lizitazioa arautzen duten baldintza-agirien eta dokumentazioaren araberakoak izan beharko dute, eta haiek aurkezteak berekin dakar enpresaburuak klausula edo baldintza guztien edukia baldintzarik gabe onartzea.
Proposamenak isilpekoak izango dira, eta neurriak hartu beharko dira proposamenak ireki arte isilpean gordeko direla bermatzeko.

Eskaintzak formatu elektronikoan aurkeztuko dira, lizitazio-iragarkietan adierazitako moduan eta Eusko Jaurlaritzaren Kontratazioko Plataforman argitaratuko dira, https://www.contratacion.euskadi.eus/inicio/ , SPKLren 135. artikuluak ebatzitakoaren arabera, LIZITAZIO ELEKTRONIKOAREN SISTEMA izeneko aplikazioaren bitartez, EUSKADIKO KONTRATAZIO PUBLIKOAN jasoa.Lizitazio-molde hori erabili ahal izateko, ziurtagiri digital bat eduki beharko da, eta tramitazio elektronikoa egiteko EAEren Administrazioko baimena izan beharko du.

Baldintza teknikoei buruzko informazioa, honako esteka honetan dago eskuragarri: https://apps.euskadi.eus/w32-content/es/contenidos/informacion/licitar_electronicamente/es_02/cambios_configuracion.html
Lizitazio elektronikoari buruzko zalantzak edo gorabeherak argitzeko laguntza zerbitzua: 945016298

-SPKLren 159.6 artikuluari jarraikiz, prozedura ireki supersinplifikatuan, proposamenak aurkezteko epea ez da 10 egun baliodun baino txikiagoa izango, iragarkia Kontratatzailearen profilean argitara eman eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita.

- Espainian kontratatzen duten atzerriko enpresek agiriak modu ofizialean gaztelaniara edo euskarara itzulia aurkeztuko dute.

Oro har, dokumentazio elektronikoa gaztelaniaz eta/edo euskaraz egongo da.

11. PROPOSAMENEN EDUKIA

GUTUNAZAL ELEKTRONIKO BAKARRA

Lizitatzailearen administrazioko dokumentazioa ez ezik, formula matematikoei

Beato Tomás de Zumárraga 69, Vitoria-Gasteiz. 01008 (Araba). Tfnoa. 945 016 000

EBAZPENA RESOLUCION
Zenbakia: 2026-0095 Data: 24/11/2026

Baliozkotze Kod.: 3QFQCFQ7QHXJ7GHCDGR5RK67W
Egiaztapena: https://tvcphkee.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 9. orrialdea, guztira 48

lotutako dokumentazioa ere barne hartuko du, eta artxibo elektroniko bereizietan aurkeztuko da, izenburu honekin: "**HKEE-RENTZAT ARRISKUEN ASEGURUA EGITEKO KONTRATUAREN KONTRATAZIOAN PROZEDURA IREKI SUPER-SINPLIFIKATU BIDEZ ESKU HARTZEKO PROPOSAMENA»**.

Honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- Adierazpen arduratsua (DEUC), lizitazioan esku hartzeko baldintza guztiak betetzeari buruzkoa.

- Proposamen ekonomikoa adierazitakoa betez aurkeztuko da eta Baldintzen Plegu-orri honen amaieran jasotako eredua baliatuta, 2017ko SPKLren 139. artikuluari jarraikiz (azaroaren 8ko 9/2017 Legea).

12. KONTRATAZIO-MAHAIA

Ez da Kontratazio-mahaia eratzea aurreikusi, ez gutun-azalen irekiera publikoa egitea ere.
Kontratazio-organoak izendatutako unitate tekniko bat arduratuko da gutun-azalak ireki eta proposamenak baloratzeaz, behin proposamenak aurkezteko epea amaitu ondoren. Eskaintzak ireki ondoren, balorazioa modu automatikoan egingo du unitate teknikoak, plegu honetan finkatutako formulak baliatuta, eta puntuazio onena eskuratzen duen lizitatzailearen aldeko esleipen-proposamena egingo da.
Esleipen-proposamena egin ostean, unitate teknikoak gaitasuna, kaudimena eta kontratatzeko debekurik ez dagoela egiaztatuko du.

13.- ALDAERAK EDO AUKERAK

Ez dira onartzen.

14. ALDAERAK EDO AUKERAK

Adjudikazioaren ebazpen arrazoitua lizitatzaileei jakinaraziko zaie eta kontratatzailearen profilean argitaratu beharko da.

Kontratua formalizatzeko, kontratistak esleipen-ebazpena onartzen duela sinatu beharko du.

Jakinarazpenak eta publikotasunak barne hartuko duen informazioak behar hainbateko informazioa eskuratuko die esleipen-prozeduran interesa dutenei, esleipenaren erabakiaren aurka nahikoa arrazoitutako errekurtsoa aurkezteko.

III.-KONTRATUAREN EGIKARITZA

15. KONTRATUAREN EGIKARITZA

Kontratistak bere gain hartuko du kontratua gauzatzea.

Kontratua agiri honetan jasotako klausulei eta, hala badagokio, espedienteari erantsitako espezifikazio teknikoei lotuta gauzatuko da, HKEEren zuzendaritzapean, ikuskaritzapean eta kontrolpean; HKEEk idatziz zein ahoz baliatuko ditu ahalmen horiek.

Beato Tomás de Zumárraga 69, Vitoria-Gasteiz. 01008 (Araba). Tfnoa. 945 016 000

EBAZPENA RESOLUCION
Zenbakia: 2026-0095 Data: 24/11/2026

Baliozkotze Kod.: 3QFQCFQ7QHXJ7GHCDGR5RK67W
Egiaztapena: https://tvcphkee.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 10. orrialdea, guztira 48

Ez da AZPIKONTRATAZIOA onartuko.

16. FISKALITATEARI, GENERO BERDINTASUNARI, INGURUMENAREN BABESARI, ENPLEGUARI ETA LAN-BALDINTZEI LOTUTAKO BETEBEHARREI ETA DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN EHUNEKO JAKIN BAT KONTRATATZEKO BETEBEHARRARI BURUZKO OBLIGAZIOAK.

Kontratistak obligazioa du lanaren, Gizarte Segurantzaren, minusbaliatuak gizarteratzearen eta lan arriskuen prebentzioaren arloan indarrean dagoen araudia betetzeko, Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legeak eta bere erregelamenduzko arauek eta hori garatzen dutenek xedatutakoaren arabera.

Halaber, behartuta egongo da gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzera kontratuan eta egikaritzan, eta polizak kudeatzeko edozein sistemak edo prozedurak diseinutik beretik datuen babesa errespetatzen duela bermatzera,eta, lehenespenez, DBEO eta DBEDBLO betetzera. Kontratazio-organoak berariaz sustatzen du, kontratua gauzatzean eta HKEErekiko komunikazioetan, euskara ahal den guztietan erabiltzea, hizkuntza-normalizazioa eta hizkuntza horretan komunikatu nahi dutenen eskubideen errespetua bultzatuz, eta hori pleguan txertatzen da, euskararen erabilera hizkuntza-sustapenerako irizpide gisa jasota gera dadin bermatzeko.

Plegu honetako 2. eranskinean jasotzen den proposamen ekonomikoan berariaz adierazi beharko dute honako arlo hauetan indarrean dauden xedapenetatik ondorioztatzen diren betebeharrak kontuan hartu dituztela eskaintzak egitean: fiskalitatea; ingurumena babestea; enplegua babestea; genero-berdintasuna; lan-baldintzak; lan-arriskuen prebentzioa, eta desgaitasuna duten pertsonen gizarteratzea eta laneratzea, bai eta datuak diseinutik beretik eta lehenespenez babestea.

Azaroaren 17ko 39/2026 Errege Lege Dekretuarekin bat etorriz (2026ko azaroaren 18ko Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 2026ko azaroaren 19tik aurrera indarrean dagoena), kontratistak bete egin beharko ditu, kontratua gauzatzen den bitartean, aplikatzekoa den legerian ordainsari-berdintasunari eta soldata-gardentasunari dagokionez ezarritako betebeharrak..[boe]

Zehazki, kontratistak honako hauek egin beharko ditu:

- Lan bera edo balio bereko lana egiteagatik emakumeen eta gizonen arteko ordainsari-berdintasunaren printzipioa errespetatu.
- Aplikatzekoak diren ordainsari-gardentasunaren betebeharrak bete.
- Kontratua gauzatzen parte hartzen duten enpresa azpikontratistek betebehar horiek betetzen dituztela bermatu.
- HKEEri betebehar horiek betetzen direla ikuskatzeko behar den informazioa eman.

HKEEk kontratua gauzatzen den bitartean betebehar horiek betetzen direla ikuskatuko du eta atzemandako ez-betetzeen izaeraren eta larritasunaren araberako zigorrak ezarri ahal izango ditu.

Beato Tomás de Zumárraga 69, Vitoria-Gasteiz. 01008 (Araba). Tfnoa. 945 016 000

EBAZPENA RESOLUCION
Zenbakia: 2026-0095 Data: 24/11/2026

Baliozkotze Kod.: 3QFQCFQ7QHXJ7GHCDGR5RK67W
Egiaztapena: https://tvcphkee.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 11. orrialdea, guztira 48

17. KONTRATISTARI EZARGARRIAK ZAIZKION OBLIGAZIOAK, GASTUAK ETA ZERGAK

Kontratistaren konturakoak izango dira kontratua formalizatzeko gastuak baldin eta kontratua eskritura publikoan jasotzen bada; baita, kontratuaren xedea zuzen egikaritzeko beharrezkoak diren eta HKEE honen baitakoak ez diren lizentzia eta baimenak ere.

Berebat, enpresak kontratua betetzeko egin beharreko gastu guztiak ordaintzeko obligazioa izango du, hala nola: orokorrak, finantzarioak, aseguruak, garraio eta joan-etorrikoak, materialak, instalazioak, bere konturako langileen ordainsariak, egiaztatze eta probetakoak, tasak eta zerga mota oro, BEZa, jardueragatik legokiokeen zerga eta kontratuak irauten duen bitartean hura egikaritzetik erator daitezkeen bestelako zeinahi, eta honenbestez, ezingo ditu gastu horiek inola ere partida aske modura jasanarazi.

Kontratistak gorde egin beharko du kontratua egikaritzetik eskura dezakeen informazioaren isileko izaera eta **pribatutasuna** berariaz aplikatu beharko du **diseinutik beretik eta, besterik adierazi ezean, isilpeko informazioa zifratzeko eta datuak minimizatzeko neurriak ezarri beharko ditu.**

18. IZAERA SOZIALA DUTEN KONTRATUAK EGIKARITZEKO BALDINTZA BEREZIAK (SPKL 2017, 202 ART.)

- Kontratuan eta egikaritzan gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzea.

- Polizak kudeatzeko zeinahi sistema edo prozedurak **datuen babesa diseinutik beretik eta lehenespenez betetzea.**

- Kontratua gauzatzean euskararen erabilera sustatzea.

19. DATU PERTSONALAK BABESTEKO GAIETAN EGIKARITZA-BALDINTZA BEREZIAK.

Kontratazio honek datu pertsonalak eskuratzea badakar, kontratistak SPKLren hogeita hamaikagarren xedapen gehigarritik eratorritako betebeharrak bete beharko ditu, datu pertsonalen tratamendua dela-eta pertsona fisikoak babesteari buruzko EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduari dagokionez eta **Datuak Babesteko** eta eskubide digitalen bermea dela-eta abenduaren 5eko 3/2018 **Lege Organikoari** dagokionez.

EBAZPENA RESOLUCION
Zenbakia: 2026-0095 Data: 24/11/2026

Baliozkotze Kod.: 3QFQCFQ7QHXJ7GHCDGR5RK67W
Egiaztapena: https://tvcphkee.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 12. orrialdea, guztira 48

20. KONTRATU-ALDAKETAK

Araubideari dagokionez, 2017ko SPKLren 190,191, 203tik 207ra bitarteko artikuluetan eta 2017ko SPKLren hirugarren xedapen gehigarrian eta APKLEOren 97. eta 102. artikuluetan xedatutakoa beteko da.

Pribatutasuna diseinutik beretik aplikatu beharko da eta, besterik adierazi ezean, isilpeko informazioa zifratzeko eta datuak minimizatzeko neurriak ezarri beharko dira.

Kontratua aldatu ahal izango da, baldin eta kontratuaren xedea barne hartzen duten polizak kontratatu behar badira.

Edonola ere, aldaketak, bakarka edo batera hartuta, eta gerta daitezkeen igoerei gehituta, inoiz ezingo dira kontratuaren esleipen-prezioaren % 20 baino gehiago igo.

21. ENPRESA KONTRATISTARI ZIGORRAK KONTRATUA EZ BETETZEAGATIK

Kontratatu den enpresak berari ezargarriak zaizkion arrazoiengatik plegu teknikoan eta plegu honetako 18., 19. eta 20. klausuletan adierazitako prestazioak zati batean betetzen ez baditu, HKEEk aukera izango du kontratua suntsiarazteko, bermea galaraziz, edo zigor bat jartzekoa, adierazitako lau egoeretako bakoitzean, betiere kontratuaren prezioaren % 10 baino handiagoa izango ez dena.

22. PROZEDURAN JARRAIPENA AZPIKONTRATATZEA

Azpikontratazioa: Ez da onartzen

Prozeduran jarraipena:
Prozedura izapidetzen ari den bitartean eta kontratua formalizatu aurretik enpresa-ondarea edo jarduera-adar bat fusionatu, zatitu edo eskualdatzen bada, enpresa lizitatzailea edo prozeduran bere lekuan dagoen hautagaia ordeztuko du sozietate irensleak, fusioz sortutakoak, banaketaren onuradunak edo enpresa-ondarearen edo dagokion jarduera-adarraren eskuratzaileak, betiere esleipen-prozeduran parte hartu ahal izateko gaitasun eta kontratatzeko debekurik ez duelako baldintzak betetzen baditu eta kaudimena eta sailkapena egiaztatzen baditu administrazio-klausula berezien plegu honetan ezarritako baldintzetan.

23. KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO KAUSAK

Kontratua suntsiarazteko kausa dira, 2017ko Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 211 eta 313 artikuluetan ezarritakoez gain, beste honako hauek ere:

- Plegu honetan eta Baldintza Teknikoen Pleguan adierazitako era guztietako betebeharrak ez betetzea.

- Esleipendunak kontratuaren xede diren prestazioak betetzeko ezintasun teknikoa.

Beato Tomás de Zumárraga 69, Vitoria-Gasteiz. 01008 (Araba). Tfnoa. 945 016 000

EBAZPENA RESOLUCION
Zenbakia: 2026-0095 Data: 24/11/2026

Baliozkotze Kod.: 3QFQCFQ7QHXJ7GHCDGR5RK67W
Egiaztapena: https://tvcphkee.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 13. orrialdea, guztira 48

- Kontratuaren suntsituko da, bermedun edo bermerik gabe, zuzenbidean bidezko diren alde baten edo bestearen aldeko kalte-ordainak eragotzi gabe.

24. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK

Kontratazio-organoak kontratuak interpretatzeko eskumena du, SPKLn adierazitako mugen barruan eta bertan adierazitako betekizun eta ondorioei lotuta.
Sektore Publikoko Kontratuen Legean ezarritako mugen barruan eta bertan adierazitako betekizun eta ondorioei lotuta, kontratazio-organoak eskumena du administrazio-kontratuak interpretatzeko, horiek betetzeak sortzen dituen zalantzak ebazteko, interes publikoko arrazoiengatik kontratuak aldatzeko, kontratua gauzatzearen ondorioz kontratistari egotz dakiokeen erantzukizuna deklaratzeko, kontratua betearaztea eteteko, kontratua suntsiaraztea erabakitzeko eta kontratuaren ondorioak zehazteko.

IV. IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

25. IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

Plegu hau oinarri hartuta egiten den kontratuak izaera pribatua izango du egikaritzan, eta administraziokoa prestakuntzan. Besteak beste, honako hauek izango dira arautzeko oinarri:

Ekonomia eta Administrazioko Baldintzen Plegu hau.

Ezaugarri Teknikoen Plegua.

Azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legea, eta Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak onartutakoa, eta irailaren 11ko 814/2015 Errege Dekretua, prestatzeari eta esleitzeari dagokionez.

Aseguru Pribatuak Antolatzeko eta Gainbegiratzeko Legea (6/2004 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 29koa, Aseguru Pribatuak Antolatzeko eta Gainbegiratzeko Legearen testu bategina onartzen duena, eta berau garatzen edo aldarazten duten xedapenak).

26/2006 Legea, uztailaren 17koa, aseguru eta berraseguru pribatuen bitartekaritzari buruzkoa.

Aseguru Kontratuari buruzko urriaren 8ko 50/1980 Legea eta lege hori aldatzen edo garatzen duten xedapenak.

26. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Jurisdikzio zibila izango da aseguru pribatuko kontratuei dagokienez alderdien artean sortzen diren eztabaidak ebazteko eskuduna.

EBAZPENA RESOLUCION
Zenbakia: 2026-0095 Data: 24/11/2026

Baliozkotze Kod.: 3QFQCFQ7QHXJ7GHCDGR5RK67W
Egiaztapena: https://tvcphkee.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 14. orrialdea, guztira 48

Alabaina, egintza juridiko bereizgarritzat joko dira kontratua prestatzeari, eskumenari eta esleitzeari buruz ematen direnak, eta, ondorioz, egintza horiek administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurkaratu beharko dira, hala badagokio.

27.- KONTRATUAREN ARDURADUNA

Kontratuaren esleipen-erabakian kontratua egikaritzeko teknikari arduradun bat izendatuko da eta azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 62. artikuluan aurreikusten diren funtzioak izango ditu.

28.- KONFIDENTZIALTASUNA DATUEN TRATAMENDUAN

Enpresa esleipendunak eta bere langileek, integritate- eta konfidentzialtasun-printzipioak betez, eskura dituzten datu pertsonalak tratatu behar dituzte segurtasun egokia bermatzeko moduan, baimendu gabeko edo legez kontrako tratamenduaren aurka eta ustekabeko galera, suntsiketa edo kaltearen aurka babestuz; horretarako, egokiak diren neurri teknikoak edo antolakuntzakoak aplikatuko dituzte datu pertsonalen tratamendurako eta datu horien zirkulazio askerako eskubideari dagokionez pertsona fisikoen babesari buruzko 2016/679 Erregelamenduan ezarritakoarekin bat etorriz, (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubideak Bermatzeari buruzko 3/2018 Lege Organikoarekin bat etorriz. Pribatutasuna diseinutik beretik aplikatu beharko da eta, besterik adierazi ezean, isilpeko informazioa zifratzeko eta datuak minimizatzeko neurriak ezarri beharko dira.

Betebehar hori sekretu profesionaleko betebeharren osagarria da, eta bere horretan iraungo du, nahiz eta datuen tratamenduaren arduradunarekin duen kontratua amaitu. Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko Lege Organikoan eta Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean xedatutakoa betetzeko, lizitatzaileei jakinarazten zaie beren eskaintza eta kontratazioa egiteko behar diren gainerako agiriak aurkeztu ondoren jasotzen diren datu pertsonalak, hala badagokio, erakunde honek tratatuko dituela, kontratuaren garapena behar bezala mantentzen, betetzen eta kontrolatzen dela bermatzeko.

EBAZPENA RESOLUCION
Zenbakia: 2026-0095 Data: 24/11/2026

Baliozkotze Kod.: 3QFQCFQ7QHXJ7GHCDGR5RK67W
Egiaztapena: https://tvcphkee.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 15. orrialdea, guztira 48

Herri Kontuen Euskal Epaitegia
Tribunal Vasco de Cuentas Públicas

1. ERANSKINA: ESKAINTZA

Nik,……jn./and., jakinarazpenak egiteko helbidea ……..-(e)n, …… zk., …….. IFZ, ……..…. erakundea ordezkatuz, …….. IFZ zk., HERRI KONTUEN EUSKAL EPAITEGIKO LANGILEENTZAKO ISTRIPU- ETA BIZITZA-ASEGURUEN POLIZAK ESTALTZEARI DAGOZKION ARRISKU PERTSONALAK kontratatzeko espedientearen berri izanik, adierazten dut ezagutzen dudala kontratu honen oinarri den plegua eta osorik onartzen dudala, eta lehiaketan parte hartzen dudala honako agiri hauek aurkeztuta:

PROPOSAMEN EKONOMIKOA

Aitortzen dut eskaintzan honako arlo hauetan indarrean dauden xedapenetatik ondorioztatzen diren betebeharrak kontuan hartu direla: fiskalitatea; ingurumena babestea; enplegua babestea; genero-berdintasuna; lan-baldintzak; lan-arriskuen prebentzioa, eta desgaitasuna duten pertsonen gizarteratzea eta laneratzea, eta datuen babesa.

_____-n, 2026ko _____ -aren _____ -a

Lizitatzailearen sinadura

EBAZPENA RESOLUCION
Zenbakia: 2026-0095 Data: 24/11/2026

Baliozkotze Kod.: 3QFQCFQ7QHXJ7GHCDGR5RK67W
Egiaztapena: https://tvcphkee.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 16. orrialdea, guztira 48

Beato Tomás de Zumárraga 69, Vitoria-Gasteiz. 01008 (Araba). Tfnoa. 945 016 000

2. ERANSKINA: ERANTZUKIZUNEZKO ADIERAZPENAREN EREDUA

OHARRA: Pleguak jaso behar duen erantzukizunezko adierazpenaren ereduak Europako Batasunaren baitan onartutako Europako kontratazio agiri bakarraren (EKAB) formularioa baliatu beharko du. Kontratazio-organoak EKAB eskatzeko eta lizitatzaileak aurkezteko aukera dute. Horretarako, EKABaren formulario normalizatua lizitatzaileen eskura dago honako helbide elektriko honetan: https://ec.europa.eu/tools/espd/filter? lang=es]

PROZEDURA IREKI SUPERSINPLIFIKATU BIDEZKO ZERBITZU-KONTRATUA (KONTRATAZIO MAHAIRIK GABE)

…… jaunak/andreak jakinarazpenetarako helbidea: ……., IFZ zk.: ……. eta erakundearen izenean: _____ IFZ: _____, _____ lizitazioan parte hartzeko ondorioetarako, _____ -(r)en aurrean

BERE ERANTZUKIZUNPEAN ADIERAZTEN DU:

LEHENENGOA. HKEEn istripu- eta bizitza-aseguruen polizak estaltzeari dagozkion arrisku pertsonalen kontratazioan parte hartuko duela.

BIGARRENA. Kontratuaren esleipendun izateko Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 140. artikulu lehenengoak eskatzen dituen aldez aurreko betekizun guztiak betetzen dituela, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora, zehazki:θ Nortasun juridikoa duela eta, hala balegokio, ordezkaritza.

Ez duela kontratatzeko debekurik, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 71. artikuluan jasotakoetatik, eta indarreko xedapenek agindutako zerga eta Gizarte Segurantzarekiko obligazioetan egunean dagoela.

Kontratutik zuzenean edo zeharka sor daitezkeen gorabehera guztietarako, Espainiako maila guztietako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen dela, eta, hala badagokio, lizitatzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikzio-foruari uko egiten diola. (Atzerriko enpresen kasuan soilik). Jakinarazpenak egiteko posta elektronikoko helbidea honako hau dela: .....

HIRUGARRENA. Konpromisoa hartzen duela deklarazio honen bigarren atalean aipatzen diren dokumentuen edukia eta baliozkotasuna egiaztatzeko, baldin eta kontratuaren esleipendun gisa proposatzen bada edo horretarako eskatzen zaion edozein unetan.

Eta horrela jasota gera dadin, **adierazpen hau sinatzen dut.**

EBAZPENA RESOLUCION
Zenbakia: 2026-0095 Data: 24/11/2026

Baliozkotze Kod.: 3QFQCFQ7QHXJ7GHCDGR5RK67W
Egiaztapena: https://tvcphkee.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 17. orrialdea, guztira 48

Herri Kontuen Euskal Epaitegia
Tribunal Vasco de Cuentas Públicas

PLIEGO DE CLÁUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES

CONTRATO DE SEGUROS DE VIDA Y ACCIDENTES (PROCEDIMIENTO ABIERTO SUPERSIMPLIFICADO)

I.- CONTENIDO DEL CONTRATO

1.- OBJETO DEL CONTRATO

El contrato que en base al presente pliego se realice, tendrá por objeto la contratación de los **SEGUROS PRIVADOS DEL TRIBUNAL VASCO DE CUENTAS PÚBLICAS, REFERIDOS A LA COBERTURA DE RIESGOS PERSONALES** en las condiciones determinadas en el Pliego de Prescripciones Técnicas, en el presente Pliego y en la oferta que resulte adjudicataria del contrato.

Riesgos personales referidos a coberturas de pólizas de Accidentes y Vida del personal al servicio del TRIBUNAL VASCO DE CUENTAS PÚBLICAS:

- Riesgo de fallecimiento por cualquier causa.
- Riesgo de invalidez permanente absoluta.
- Riesgo de invalidez permanente total, en los términos previstos en el pliego técnico.
- Riesgos derivados de accidentes, incluidos fallecimiento, incapacidad permanente absoluta, incapacidad permanente total e incapacidad permanente parcial, conforme al baremo aplicable.
- Cualesquiera otras coberturas accesorias previstas en el pliego de prescripciones técnicas particulares.

El objeto del contrato no se divide en lotes por ser antieconómico, inoperativo y no ser susceptible de división dada la coordinación necesaria, a efectos de su ejecución.

DOCUMENTOS DE CARÁCTER CONTRACTUAL. Tienen carácter contractual los siguientes documentos:

a) El pliego de cláusulas administrativas particulares (PCAP).
b) El pliego de prescripciones técnicas particulares (PPTP).
c) El documento de formalización del contrato o Resolución de adjudicación.

El contrato se dirigirá directamente a compañías aseguradoras habilitadas para contratar los seguros objeto del expediente. **No se contempla la presentación de ofertas por mediadores ni que éstos sean propuestos por las compañías aseguradoras** para la prestación del servicio.

Beato Tomás de Zumárraga 69, Vitoria-Gasteiz. 01008 (Araba). Tfnoa. 945 016 000

EBAZPENA RESOLUCION
Zenbakia: 2026-0095 Data: 24/11/2026
Baliozkotze Kod.: 3QFQCFQ7QHXJ7GHCDGR5RK67W
Egiaztapena: https://tvcphkee.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 18. orrialdea, guztira 48

Toda la documentación contractual y comunicaciones públicas podrán ser emitidas en castellano y/o euskera, garantizando el derecho de los licitadores y del personal del tvcp a utilizar el euskera en el procedimiento y durante la ejecución del contrato.

2.- PLAZO DE EJECUCIÓN

El plazo de duración del contrato será de UN AÑO a contar desde el día 1 de enero de 2027. Sin posibilidad de prórroga.

3.- PRESUPUESTO DEL CONTRATO Y EXISTENCIA DE CREDITO

En cuanto a la existencia de crédito, se deja constancia de existir consignación presupuestaria para hacer frente al importe de las primas de las diferentes pólizas objeto de este contrato.

